

## AGINTARIAK ETA LANGILEAK

### Oposizioak eta lehiaketak

#### OSASUN SAILA

## 1938

*AGINDUA, 2026ko apirilaren 27koa, Osasuneko sailburuarena, Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari lanpostua izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko deialdia bete gabe uzten duena.*

Euskal Enplegu Publikoaren abenduaren 1eko 11/2022 Legeko 102.2.c) artikuluan xedatutakoaren arabera, eta Osasuneko sailburuaren 2025eko urriaren 13ko Aginduak, sail honetako lanpostu huts bat izendapen askeko sistemaren bidez betetzeko dei publikoa egiten duenak, 4. oinarrian agindutakoari jarraituz, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe uztea Osasun Saileko Kabinete eta Komunikazio Zuzendaritzako goi-kargudunaren idazkari lanpostua (kodea: 520010; dotazioa: 149).

Bigarrena.– Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Beraz, beraren aurka, aukerako berraztertze errekurtsoa aurkez dakioke agindua eman duen organoari, hilabeteko epean; edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa Administrazioarekiko Auzietako Epaitegiari, bi hilabeteko epean. Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da errekurtsoak aurkezteko epea.

Vitoria-Gasteiz, 2026ko apirilaren 27a.

Osasuneko sailburua,  
ALBERTO MARTÍNEZ RUIZ.